


Scape room, ihes-gelen joko berria

Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua

Ariketa-sorta honetan, escape room edo ihes-gelen fenomenoari buruz arituko gara. Horretarako, hainbat ariketa egiteko aukera izango duzu. Gaiari heldu aurretik, erantzun galdera hauei eta komentatu taldean.



- Taldean aritzekoa den jokoren batean ibili zara inoiz? Rol-jokoak, Altxorraren bila, Jinkana...
- Esperientzia hori gustatu zitzazu? Zer gustatu zitzazu gutxien edo gehien?

1- Bideoa ulertu

Ikusi Maite Redondori egindako elkarrizketa eta bideoa ikusi bitartean, esan honako esaldi hauek EGIA ala GEZURRA diren.



Egia Gezurra

1. Escape room taldetan egiten den joko bat da, eta helburua gelatik ateratzea da.
2. 2007. urtean sortu zen eta bere horretan mantendu da gaur egun arte.
3. Escape room guztietako arauak berdin-berdinak dira.
4. Gelatik irtetea lortzeko, taldekideen arteko komunikazioak du garrantzia.
5. Taldekideen arteko kohesioa garrantzitsua bada ere, kideren batek bere kabuz saiatu behar du.
6. Edonorekin egin dezakegun ekintza bat da, eta, gainera, ez da garestia.

HIZTEGI LAGUNGARRIA:

Orokorrean azaltzeko, **errango** nuke joko bat dela: **Esango**
Hemen, gurean, zortzi urtetik **aitzin** jolasten ahal dute: **Urte horietatik aurrera**
Jokoaren garapenean **arras** inportantea da komunikazioa: **Oso, erabat**
Ez baduzu lortu, nik egin behar dut **bertze** bat: **Beste**

2- Nola egin ihes gela itxi batetik

Irakurri Escape Room jokoari buruzko erreportajea. Testua irakurri ondoren, erantzun galderei:

Escape room-a: nola ihes egin gela itxi batetik

Escape room-a aisialdirako ekintza bat da, eta Japonian sortu zen 2007. urtean, ihes-joko birtualak bitzta errealera pasatzea erabaki zutenean. Orduz geroztik, mundu osoan egin dira ezagun eta, pixkanaka-pixkanaka, iritsi dira gure artera ere. Escape roomari euskaraz ihes-gela deituko genioke, eta abenturazko joko fisikoa eta mentala da. Jende-multzo bat gela batean giltzapetu eta, emandako denbora amaitu aurretik, bertatik ateratzea lortu behar dute.



Horretarako, igarkizunak, asmakizunak, pasahitzak, buruhaustek, zenbakidun giltzarrapoak... gaudituz beharko dituzte. Ihes- gelak girotuta egoten dira: espazio-ontziak, etxe sorginduak, hiltzaile baten gordelekuak, bunker militarrik eta beste hainbat egoera izan daitezke protagonistak.

“Logika erabili behar da, eta erronka batzuk gaudituz behar dira gelatik irtetea lortzeko”, esan digu Maite Redondok, Elizondoko Baztan escape roomeko arduradunak. Berari esker, aisialdiko ekintza hau bertatik bertara ezagutzeko aukera izan dugu.

Partaideak eta Basajauna

Bi eta sei lagun arteko taldeak izaten dira parte hartzen dutenak: “Leku bakoitzak bere arauak ditu, baina kopuruak horrelakoak izaten dira normalean. Gurera etortzeko, zortzi urtetik aitzin izan behar dute, gazteagoek ezin baitute parte hartu”.

Hainbat escape room egin zituen Maitek, berea martxan jarri aurretik: “Lehenbizikoa lagunekin Irun, ean egin ondoren, Elizondon horrelako bat ireki nahi nuela erran nion senarrari. Erotu egin nintzela pentsatu zuen, baina gero gehiago egin nituen, eta beti gauza bera erraten nion. Azkenean, hemen gaude”. 2017ko ekainean ireki zituen ateak Baztan escape roomak.

Dolores Redondok Baztanen girotuta idatzitako eleberriei esker, turista-kopurua handitu egin da inguru horretan. “Turismoa erakartzea eta gai euskaldun bat hautatzea zen nire asmoa. Horregatik, Basajauni buruz egitea erabaki nuen, euskal mitologiako basoko zaindariari buruz, hain zuzen ere”, kontatu digu.



Ihes egitea lortzeko gakoa

Ordubeteko tartea izaten dute partaideek gelatik ihes egiteko, eta % 35ek lortzen dutela esan digu: “Zailena jokia asmatzea izan da, eta, baita ere, ordubeteko tartean zenbat proba sartu erabakitzea. Agian, talde batek 40 minutuan irtetea lortzen du, eta bertze batek ordu eta laurdenean. Fite atera direnendako errazagoa izango da bertzeentzat baino. Subjektiboa da”.

Helburua lortzeko gakoa talde-jokoan dagoela azpimarratu digu: “Taldekoen arteko komunikazioa arras garrantzitsua da jokoaren garapenean, eta gakoa horixe da, nire ustez. Guztiok jakin behar dugu zer aurkitu duen kide batek edo zer egin duen bertzeak. Kohesioak ez du desagertu behar, bestela ez dugu gelatik irtetea lortuko”.

Modan

Zuzenean biziko dugun esperientzia bat da, jendearekin partekatuko duguna, zirrarak eta adrenalina sortuko dizkiguna. Horregatik ari dira mundu osoan zabaltzen escape roomak. "Lehenengo aldiari probatzen joaten gara, zer den ikustera, eta, ateratzea lortu edo ez, geure burua xaxatzen dugu: hurrengoan ateratzea lortuko dut, edo lehenago aterako naiz", azaldu digu Maitek.

Bera ere harrapatu du joko horrek, eta hamar ihes-gela inguru egin baditu ere gehiago egin nahi ditu: "Aktibitate merkea da, eta familiarekin, lagunekin, hurrekin, adinekoekin... egin dezakegu. Nik dauden guztiak egingo nituzke, zalantzarik gabe".

1. Honelako joko batean parte hartuko zenuke? Eman arrazoiak.



.....

.....

.....

2. Norekin jokatu zenuke joko horretan?

.....

.....

.....

3. Hau talde-jokoa dela azpimarratu digu Maitek. Ezagutzen duzu antzeko beste jarduera edo jokorik?

.....

.....

.....

3- Escape roomera ala paintballera?

Lagunekin Baztan escape roomera joan nahi duzu, baina beraiek nahiago dute **paintaballean** * jokatu.

Zerrendatu escape roomak izan ditzakeen alde onak eta osatu hori deskribatzen duen testu labur bat zure lagunak konbentzitzeko.

Paintballari buruzko informazioa osatu nahi baduzu, hemen aurki dezakezu.

Testurako ideiak:


Escape rooma taldeka egiten den aktibitate bat da.

Baztango escape roomean, bi eta sei lagun arteko taldeek har dezakete parte.

Gure arteko komunikazioa eta kohesioa lantzen dira.

Adibidez:

Escape rooma talde-jokoa da eta seik har dezakete parte. Gu seiko taldea gara eta gure arteko komunikazioa lantzeko aukera paregabea dela uste dut. (...)



* Painballi buruzko informazioa behar izanez gero, ondoko testua erabil dezakezu:

Paintball-ean, partaideek kontrako taldearen jokalariei margo-bolatxoak jaurtitzeko, gas konprimatutako markadorak erabiltzen dituzte.

Uste ohi denaren kontrakoa, joku-arauak betetzen badira eta jantzi aproposa erabiltzen bada, paintball-a ez da batere arriskutsua.

Normalean bi talde, bata bestearen kontra, helburu bat lortzeko aritzen dira, hau da, kontrako jokalaria guztiak edo jokalaria jakin bat kanporatzeko edo bandera bat lortzeko.

Paintball partidu batek, profesionala ez bada, partaide zenbakiaren eta trebetasunaren arabera, bost eta hamabost minutu arteko iraunpena du. Paintball-a, New Hampshire-an, U.S.A., 1981ean sortu zen. 1995ean gure herrian ezartzen da eta lehenengo joku-zelaiak eta txapelketak sortzen dira.

IZKI-PAINTBALL
URTURI (ALAVA)



1- Bideoa ulertu

Egia	Gezurra
1-4-6	2-3-5